



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

«Kontseilua ezin saihestuzko iritzia bihurtu da euskararen alorrean»

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU Kontseiluko idazkari nagusia

Kontseiluak erreferentzialtasuna lortu duela dio, baina asko duela egiteko. Gizarteak 'Bai Euskarari'-tik 'Bai Euskaraz'-era pasatu behar duela adierazi du.

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA

Ez da erraza Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendiguren Berezarturekin (Ezki-Itsaso, 1945) hitz egitea egun hauetan. Hainbat lanetan murgilduta dago, eta agenda bete-betea du. Kontseilua barne hausnarketa prozesu batean dagoela esan du, erakundeak 10 urte bete dituela-eta baliatuta.

10 urteren ondoren, euskalgintzan erreferentzia izatea lortu du Kontseiluak?

Dudarik gabe, maila askotan. Euskalgintzan dauden taldeek sektore mailan egiten zutenaz haratago euskararen alde lan egiteko sortu ginen, normalizazioa bultzatzeko. Alor horretan hamar urte hauetan guk egindako lanek eta komunikazio adierazpenek lortu dute oihartzun argi bat, eta eragite hori ukazina da. Gaur egun, ia inork ez du euskararen inguruko edozein gai argitaratzen gure iritzia zein den jakin gabe.

Bestalde, Bai Euskarari Ziurtagiriak, Behatokiak, euskararen normalizazioari buruz eman ditugun iritziek... horrek denak giro ja-

kin bat sortu du, eta horrek bultzatu du Kontseilua erreferente garbi bat bezala ikustera. Gaur egun Kontseilua ezin saihestuzko iritzia bihurtu da euskararen alorrean.

Bai Euskarari ziurtagiriarekin lan handia egin du Kontseiluak euskararen normalizazio lan mundura helarazteko, ezta?

Bai. Kopuruak hor daude. Hasieratik Euskal Herri osoan lan egiten duela, eta horrek esan nahi du milaka eta milaka konpromiso daudela euskararen aldekoak. Prozesu zabal bat dago abiatuta eta aurrera doa.

Behatokia ere sortu zenuten. Lortu du Behatokiak hizkuntz eskubideren bat salatzeko herritarrek bere ingurura ekartzea?

Hizkuntz eskubideen kontzientzia bat hedatzen hastea lortu du. Badakigu honelako prozesuak ez direla urte batetik bestera lortzen. Euskaldunak oraindik pauso asko eman behar ditu kontzientzia horretaz jabetzeko; eskubide batzuen jabe dela eta horiek balioarazi egin behar dituela konturatu behar du. Alde horretatik, pentsaera aldaketa bat gertatzen ari dela uste dut, eta, hain zuzen, hori ari da gertatzen euskararen erabilera handiago dagoen tokietan hein handi batean. Baina, hau, egin behar den lanaren hasiera baino ez da. Kontseilua erreferentzia bihurtu den moduan, Behatokia ere erreferentzia

da hizkuntz eskubideak balioarazteari dagokionean. Galizian eta Katalunian tresna bera sortu dute, eta horrek adierazten du bide one-tik goazela.

Kontseiluak gizartearen eragiteko borondatea izan du hasieratik.

Kontseilua une honetan Euskal Herri osoko 121 herritara hedatu da. Milaka eta milaka herritarren-gana heldu gara, eta horrek esan nahi du, pertsona bakoitzak, hiz-tun bakoitzak, bete dezakeela euskararen normalizazioaren zuloa. Ideia horrek indar handia hartzen du, jendea konturatzen delako hutsune hori ezin dezaketela bete erakundeek ez beste inork. Horren froga da urteroko ebaluazioak egiten ditugunean oso gutxiak ez dutela betetzen hartutako konpromisoa.

Kontseiluak gizartearen eragiteko daukan gaitasunaren adierazle esanguratsuena orain bederatzi urte gertatu zen, Euskal Herriko bost estadio handienak betetzea lortu zenutenean. Nola gogoratzen dituzu garai horiek?

Inoiz susmatzen ez genuen zerbait izan zen. Nik dakidala, Euskal Herrian inoiz egin zen kanpainarik laburrena izan zen, oso epe laburrean prestatua izan zen, baina tsunami baten moduko indarra hartu zuen. Parte hartzen ari ginenok asko mugitu ginen, instituzioekin eta talde ezberdinekin hitz egin genuen, herrietan ere 200dik gora batzorde sortu ziren... Egundoko dinamika zabala sortu zen, eta, eza-guna den bezala, su-etanaren ga-

raian sortu zen. Sortu zen giroak eta euforiak denak bat eginda lagundu zuten. Oso oroitzen onak daukat. Lan asko egitea egokitu zitzaigun, baina ikusi genuenean zer gertatu zen, guk ere ez genuen hasiera batean sinesten. Kontseilua-arentzat hori izan zen abiapuntua, eta horrek aukera eman zuen urte hauetan egin dugun lana egiteko.

Etorkizunera begira zer dauka buruan Kontseiluak?

Urteurrena dela eta, Kontseilua balantze bat egiten ari da. Baina atzera begira baino gehiago aurrera begira jartzeko garaia da. Datoren 10 urteetan norantz abiatu nahi dugun nahi dugu ikusi. Eta hori Kontseilua osatzen dutenen eztabaida batekin egin nahi dugu. PONENTZIA bat prestatu da horretarako, eta nahi dugu denen kontsentusarekin hori planteatu. Gauza asko daude egiteko, baina lehentasun batzuk jartzea nahiko genuke. Euskarak jauzi kualitatiboa egin behar du, orain arte daraman abiadura arindu egin behar du, eta hori guztia elkarlanaren bidez egin be-

«Herritarrek konturatu behar du eskubide batzuk dituela eta horiek balioarazi behar dituela»

«Euskarak daraman abiadura arindu egin behar du, eta hori elkarlanaren bidez egin behar dugu»

har dugu. Hilaren 15ean batzar bat egingo dugu, eta hor adierazpen bat gizarteratuko dugu. Hortik aurrera pausoak ematen hasiko gara, aipatu dudana pONENTZIA lantzeko.

Bai Euskarari zikloa amaitu dela eta Euskaraz Bai zikloa hasi behar dela esan du zu. Zer esan nahi du horrek?

Ez diogu uko egiten Bai Euskarari, hori izan delako gure abiguneko leloa. Baina oso argi ikusten dugu hori gainditutako aroa dela. Bai Euskararik esan nahi du euskararen alde egotea, eta gizartearen gehiengoa dago euskararen alde. Baina hori ez da nahikoa; euskarak hori baino gehiago behar du. Egon liteke euskararen alde, baina eus-kara ez ikasi eta ez erabili. Bigarren pauso hori ematea ezinbestekoa da. Hemendik aurrera euskaraz egiteari, euskara erabiltzeari, emango diogu garrantzia. Hori gizarteratu behar dugu, euskararen normalizaziorako beharrezkoa delako.

Euskararen erabilera eztabaidagai bihurtu da aspaldi honetan administrazioen eta eragileen artean. Nola ikusten duzu eztabaida hori?

Gure gizarteak artikulatzeko ezinbestekoa da erabileraren eragitea. Gu oraindik ahul gaude. Gu inguratzeko gaituzten beste hizkuntzetako hedabideek indar handia dute, eta gu irentsi egiten gaituzte. Hortik dator euskaldunak askotan sentitzen duen ezintasun izugarria. Euskarazko bitartekoak oso maila desorekatuan ari dira aurrera egiten merkatuan. Kontzientzia oso argia izan behar dugu, eta benetan euskararen unibertso bat artikulatu nahi badugu, bitarteko horiek indar handiz bultzatu behar ditugu, eta maila guztietan. Horregatik diogu hemen frantsez edo gaztelaniaz diharduten komunikabideek kuota bat izan behar dute, gezurra ematen badu ere, hainbeste urte eta gero ez dutelako aintzat hartzen euskararen normalizazioa. Bitartean, gure komunikabideei ematen zaizkien laguntzak oso urriak dira, eta gero eta eronka gogorragoak eta garestiagoak datozkigu.

Euskalgintzako eragile batzuen ustez, Kontseiluak ez du lortu administrazioen aurrean eragile pisutsu bezala agertzea. Batzatzor horrekin?

Kontseiluak administrazioaren aurrean jarrera edo hartu-eman ezberdinak izan ditu. Kontseiluak lehenengo behar du sektoreka iritzi bilketak egitea, eta azken urte hauetan gero eta gehiago lortu dugu. Zenbat eta iritzi bateratuagoak eta pentsatuagoak ditugun sektoreka, Kontseiluak horren ordezkaritza hobeto bultzatzen du. Horren adibide da Jaurilaritzako Hezkuntza Sailarekin egiten dugun lana irakats ereduak gainditzeari begira edo etorkinak integratzeari begira. Horrelako gauzek denbora eskatzen dute, konfiantza irabazi behar da, baina etorkizuneko horrelako adibide gehiago izango dela uste dut. Lan munduaren sektorea ere gero eta gehiago biltzen ari da, bere azterketa egiten.